

Gaixoen Pazkoa – Pascua del Enfermo



Subudio Liturgikoa – Subsidio Litúrgico : Eucaristía

Elibarrutiko Osasun Pastoraltzako Serbitzua – Servicio Diocesano de la Pastoral de la Salud

Sarrerako monizioa

VI. Pazko igande honetan, Gaixoaren Pazkoa ospatzera gonbidatzen gaitu Elizak. Gaixoen aldeko Kanpainari amaiera ematen dio ospakizunak, eta, aurten, Jubileu urtean, Frantzisko aita santuak Jubileu honetarako proposatu duen leloa dauka: *Itxaropenaren erromesak*. Zentzu horretan, gure kanpainaren gai egin dugu: “Itxaropenean gaude salbatuta” (Errom 8,24).

“Bide bat da kristau bizitza, eta une sendoak behar ditu, itxaropena elikatzeko eta sendotzeko, helmuga ikusteko aukera ematen duen lagun ordezkaezina: Jesus Jaunarekin elkartzea” (5. Bula). Eukaristia eta gure anaia-arrebek gaur hartuko duten gaixoien igurtzia salbamendu eta itxaropen iturri dira, benetan, gaurko bigarren irakurketak aipatzen dizkigun loria eta argia. “Ez dadila zuen bihotza asaldatu, ez eta kikildu ere”.

Itxaropenez hasiko dugu ospakizun hau (eta Igurtziaren sakramentua jasoko duten anaia-arrebak ere hartuko ditugu).

Fededunen otoitzan:

Jaso dezagun gure otoitza Jainko Aitarengana, harengandik baitator kontsolamendu guztia, eta gogora ditzagun edozein sufrimendu mota pairatzen duten guztiak, “itxaropenaren erromes” garela gogoratuz.

E. Entzun arren Jauna.

- Elizaren alde: bere ama-bokazioa onartuz, bakarrik sentitzen diren guztiak bere baitan har ditzan eta Kristoren kontsolamendua eskain dezan. ***Eska diezaiogun Jaunari.***

-Gaixorik dauden gure anaia-arreben alde: minaren misterioa sentituz, Elizaren presentzia hurbila eta amatasunezkoa ere senti dezaten. ***Eska diezaiogun Jaunari.***

- Gaixo eta adinekoen zerbitzura dauden guztien alde: beren dedikazioa eta entrega Aitaren aurpegi errukitsuaren isla izan daitezen, behar gaituenarentzat. ***Eska diezaiogun Jaunari.***

- Aita, itxaropenaren lehen zeinua bake bihur dadila munduarentzat. ***Eska diezaiogun Jaunari.***

-Gure kristau elkartearren alde, gure parrokiaren alde: Itxaropena elikatzera deitura, sufritzen ari direnentzat itxaropenaren lekuko izan gaitezen eta gizakien beharretatik hurbil ager dadin. ***Eska diezaiogun Jaunari.***

Entzun, Aita, gure otoitza eta emaguzu bihotz errukiorra, sufritzen ari diren gure anaia-arreben premiei adi egon gaitezen eta, beldurrik gabe, haiekin egoteko konpromisoa har dezagun. Jesu Kristoren gure Jaunaren bitartez. Amen.

Monición de entrada

En este VI domingo de Pascua la Iglesia nos invita a celebrar la Pascua del Enfermo. Una celebración que pone fin a la Campaña del Enfermo, que este año Jubilar tiene el mismo lema propuesto por el Papa Francisco para este Jubileo: “Peregrinos de Esperanza”, en este sentido hacemos tema de nuestra Campaña: “En esperanza fuimos salvados” (Rom 8,24)“La vida cristiana es un camino, que también necesita momentos fuertes para alimentar y robustecer la esperanza, compañera insustituible que permite vislumbrar la meta: el encuentro con el Señor Jesús” (Bula 5). Los sacramentos de la Eucaristía y la unción de los enfermos que recibirán hoy nuestros hermanos son, verdaderamente fuente de salvación y de esperanza, gloria y lámpara de que nos habla la segunda lectura de hoy. “Que no se turbe vuestro corazón ni se acobarde”. Con esperanza, iniciamos esta celebración (y acogemos también en ella a los hermanos que van a recibir el Sacramento de la Unción).

Oración de los Fieles:

Elevemos nuestra oración a Dios Padre, de quien procede todo consuelo, recordando a cuantos padecen cualquier forma de sufrimiento, recordando que somos “Peregrinos de esperanza”.

R. Padre, en Ti confiamos.

- Por la Iglesia: para que asumiendo su vocación maternal acoja en su seno a todos los que se sienten solos y haga presente el consuelo de Cristo. **Oremos.**

-Por nuestros hermanos enfermos: para que, experimentando el misterio del dolor, sientan también la presencia cercana y maternal de la Iglesia. **Oremos.**

-Por todos los consagrados al servicio de los enfermos y mayores: para que su dedicación y entrega sea reflejo del rostro misericordioso del Padre para quien nos necesite. **Oremos.**

-Padre, que el primer signo de esperanza se traduzca en paz para el mundo. **Oremos.**

-Por nuestra comunidad cristiana, nuestra parroquia: Llamados a alimentar la esperanza para que seamos testigos de esperanza para cuantos padecen y se muestre siempre cercana a las necesidades de los hombres. **Oremos.**

Escucha, Padre, nuestra oración y danos un corazón compasivo, para que nos mostremos siempre más atentos a las necesidades de nuestros hermanos que sufren y nos comprometamos, sin miedo, a acompañarlos. Por Jesucristo, nuestro Señor. Amén.

Gaixoen aldeko otoitz

“Itxaropenean gaude salbatuta”

Zeruko Aita,
piztu gugan
zure Erreinuaren etorreraren
zorioneko itxaropena.
Jubileuaren graziak
pitx dezala gugan,
itxaropenaren erromesongan,
zeruko ondasunen irrika,
eta isur ditzala, mundu osoan,
gure Berreroslearen
poza eta bakea.
Zuri, Jainko betiko
bedeinkatuari,
aintza eta laudorio, gizaldi eta
gizaldietan. Amen.

Oración por el Enfermo

“En esperanza fuimos salvados”

Padre que estás en el cielo,
despierta en nosotros
la bienaventurada esperanza
en la venida de tu Reino.
La gracia del Jubileo
reavive en nosotros,
Peregrinos de Esperanza,
el anhelo de los bienes
celestiales
y derrame en el mundo entero
la alegría y la paz
de nuestro Redentor.
A ti, Dios bendito
eternamente,
sea la alabanza y la gloria por
los siglos. Amén.

FRANTZISKO AITA SANTUAREN MEZUA, GAIXOEN ALDEKO XXXIII. MUNDU

JARDUNALDIAREN HARIRA

«Itxaropenak ez du huts egiten» (Errom 5,5)

eta indartsu egiten gaitu atsekabean

Anaia-arreba maiteak:

2025eko Jubileu Urte honetan, Gaixoen aldeko XXXIII. Mundu Jardunaldia dugu, eta “itxaropenaren erromes” bihurtzera gonbidatzen gaitu Elizak. Jainkoaren Hitza dugu lagun horretan, San Pauloren bidez mezu handi bat ematen baitigu: «Itxaropenak ez du huts egiten» (Errom 5,5), are gehiago, indartsu egiten gaitu atsekabean.

Hitz kontsolagarriak dira, baina galdera batzuk sor ditzakete, sufritzen ari direnengan, bereziki. Adibidez: Nola mantentzke indartsu, gaixotasun larriak, desgai bihurtzen gaituztenak, eta, agian, gure ahalmenetatik harago doazen kostuak dituzten tratamenduak eskatzen dituztenak, pairatuta? Nola, gure sufrimenduaz gain, maite gaituztenak sufritzen ikusten ditugunean eta, gure ondoan egonda ere, guri ezin laguntzeagatik ezinean sentitzen badira? Egoera horietan guztietan, guregandik goragoko laguntza baten beharra sentitzen dugu: Jainkoaren laguntza behar dugu, bere graziarena, bere Probidentziarena, bere Espirituaren dohaina den indar horrena (ik. Eliza Katolikoaren katixima, 1808).

Goazen, bada, une batez Jainkoaren presentziari buruz hausnartzera, sufritzen duenarengandik hurbil baitago, ezaugarri dituen hiru alderdiren bitartez bereziki: *elkartzea, dohaina eta partekatzea*.

1. *Elkartzea*. Hirurogeita hamabi ikasleak misioan bidali zituenean (ik. Lk 10,1-9), gaixoei honako hau esateko esan zien Jesusek: «Jainkoaren Erreinua zuengandik hurbil dago» (9. b.). Zehazki, gaixotasuna ere, mingarria eta ulertzen zaila izan arren, Jaunarekin elkartzeko aukera bat dela ulertzen laguntzeko eskatu zien. Gaixoaldian, alde batetik gure hauskortasun erabatekoa — fisikoa, psikologikoa eta espirituala — sentitzen dugu izaki gisa; bestetik, berriz, Jainkoaren hurbiltasuna eta errukia sentitzen ditugu, gure sufrimenduak partekatu baititu Jesusengan. Ez gaitu bakarrik uzten, eta, askotan, harritu egiten gaitu inoiz izango ez genukeen eta geure kabuz inoiz aurkituko ez genukeen erabaki baten dohainarekin.

Orduan, eraldatzen gaituen elkartze baterako abagune bihurtzen da gaixotasuna; bizitzaren ekaitzei aurre egiteko helduleku izan dezakegun harri hautsezina; sakrifizioan ere, indartsuago bihurtzen gaitu esperientzia horrek, ez gaudela bakarrik jabetzen baikara. Horregatik esaten da oinazeak beti daramala berekin salbamenaren misterioa, Jainkoagandik datorren kontsolamendua era hurbil eta errealean esperimentarazten

MENSAJE DEL SANTO PADRE FRANCISCO
CON OCASIÓN DE LA XXXIII JORNADA MUNDIAL DEL ENFERMO

«La esperanza no defrauda» (Rm 5,5) y nos hace fuertes en la tribulación

Queridos hermanos y hermanas:

Celebramos la XXXIII Jornada Mundial del Enfermo en el Año Jubilar 2025, en el que la Iglesia nos invita a hacernos “peregrinos de esperanza”. En esto nos acompaña la Palabra de Dios que, por medio de san Pablo, nos da un gran mensaje de aliento: «La esperanza no defrauda» (Rm 5,5), es más, nos hace fuertes en la tribulación.

Son expresiones consoladoras, pero que pueden suscitar algunos interrogantes, especialmente en los que sufren. Por ejemplo: ¿cómo permanecer fuertes, cuando sufrimos en carne propia enfermedades graves, invalidantes, que quizás requieren tratamientos cuyos costos van más allá de nuestras posibilidades? ¿Cómo hacerlo cuando, además de nuestro sufrimiento, vemos sufrir a quienes nos quieren y que, aun estando a nuestro lado, se sienten impotentes por no poder ayudarnos? En todas estas situaciones sentimos la necesidad de un apoyo superior a nosotros: necesitamos la ayuda de Dios, de su gracia, de su Providencia, de esa fuerza que es don de su Espíritu (cf. Catecismo de la Iglesia Católica, 1808).

Detengámonos pues un momento a reflexionar sobre la presencia de Dios que permanece cerca de quien sufre, en particular bajo tres aspectos que la caracterizan: el *encuentro*, el *don* y el *compartir*.

1. El *encuentro*. Jesús, cuando envió en misión a los setenta y dos discípulos (cf. Lc 10,1-9), los exhortó a decir a los enfermos: «El Reino de Dios está cerca de ustedes» (v. 9). Les pidió concretamente ayudarles a comprender que también la enfermedad, aun cuando sea dolorosa y difícil de entender, es una oportunidad de encuentro con el Señor. En el tiempo de la enfermedad, en efecto, si por una parte experimentamos toda nuestra fragilidad como criaturas —física, psicológica y espiritual—, por otra parte, sentimos la cercanía y la compasión de Dios, que en Jesús ha compartido nuestros sufrimientos. Él no nos abandona y muchas veces nos sorprende con el don de una determinación que nunca hubiéramos pensado tener, y que jamás hubiéramos hallado por nosotros mismos.

La enfermedad entonces se convierte en ocasión de un encuentro que nos transforma; en el hallazgo de una roca inquebrantable a la que podemos aferrarnos para afrontar las tempestades de la vida; una experiencia que, incluso en el sacrificio, nos vuelve más fuertes, porque nos hace más conscientes de que no estamos solos. Por eso se dice que el dolor lleva siempre consigo un misterio de salvación, porque hace experimentar el consuelo que viene de Dios de forma cercana y real, hasta «conocer la

Eta bigarren gogoeta-puntura garamatza horrek: *dohainera*. Izen ere, sufrimenduan konturatzen gara itxaropen oro Jaunarengandik datorrela, eta horregatik dela, batez ere, hartu eta landu behar dugun dohaina, “Jainkoaren leialtasunari leial” izanda, Madeleine Delbrêlen adierazpen ederraren arabera (ik. *La speranza è una luce nella notte*, Vatikano Hiria 2024, Prefazioa).

Gainerakoan, Kristoren berpiztean bakarrik aurkitzen dute gure patuek beren lekua betierekotasunaren zerumuga amaigabean. Bere Pazkotik bakarrik datorkigu ezerk, «ez heriotzak, ez bizitzak, ez aingeruek, ez printzerriek, ez orainak, ez etorkizunak, ez botere espiritualek, ez goikoak, ez sakonak, ez beste ezein izakik Jainkoaren maitasunetik banandu ezingo gaituen» ziurtasuna (Errom 8,38-39). Eta “itxaropen handi” horretatik dator bizitzako probak eta oztopoak gainditzeko aukera ematen digun beste edozein argi-izpi (ik. Benedikto XVI.aren *Spe salvi* gutun entz., 27.31). Ez hori bakarrik, Berpiztua ere gure ondoan doa, bidelagun dugu, Emausen dzipuluekin bezala (ik. Lk 24,13-53). Haien bezala, guk ere parteka ditzakegu Harekin gure nahasmena, gure kezkak eta gure desilusioak; Haren Hitza entzun dezakegu, gure bihotza argitu eta sutan jartzen diguna eta Ogi zatian ezagutarazten diguna, gurekin egote horretan, orainaren mugetan ere, hurbiltzean ausardia eta konfiantza ematen digun “haratago” hori ikusiz.

2. Eta hirugarren alderdira iristen gara horrela, *partekatzera*. Sufrimendua duten lekuak elkartrukerako eta elkar aberasteko lekuak dira askotan. Zenbat aldiz ikasten den itxaroten, gaixo baten ohearen ondoan! Zenbat aldiz ikasten den sinesten, sufritzen duenarengandik hurbil egonda! Zenbat aldiz deskubritzen den maitasuna, beharrean dagoenaren aurrean makurtuz! Hau da, itxaropenaren “aingeru” garela konturatzen gara, Jainkoaren mezulari, elkarrentzat, denok bat eginda: gaixoak, medikuak, erizainak, senideak, lagunak, apaizak, mojak; eta gauden tokian gaudela: familiar, dispentsarioetan, zaharren egoitzetan, ospitaleetan eta kliniketan.

Eta garrantzitsua da graziazko topaketa horien edertasuna eta neurria ezagutzea, eta ariman idazten ikastea, ez ahazteko; bai eta osasun-eragile baten irribarre atsegina, gaixo baten esker oneko begirada konfiantzazkoa, mediku edo boluntario baten aurpegi ulerkor eta arretatsua, ezkontide, seme, biloba edo lagun maitagarri baten aurpegi zain eta urduria bihotzean gordetzea ere. Gorde beharreko argiak dira guztiak ere, probaren iluntasunean indarra emateaz gain, bizitzaren benetako zaporea irakasten baitute, maitasunean eta hurbiltasunean (ik. Lk 10,25-37).

plenitud del Evangelio con todas sus promesas y su vida» (S. Juan Pablo II, *Discurso a los jóvenes*, Nueva Orleans, 12 septiembre 1987).

2. Y esto nos conduce al segundo punto de reflexión: el *don*. Ciertamente, nunca como en el sufrimiento nos damos cuenta de que toda esperanza viene del Señor, y que por eso es, ante todo, un don que hemos de acoger y cultivar, permaneciendo “fieles a la fidelidad de Dios”, según la hermosa expresión de Madeleine Delbrêl (cf. *La speranza è una luce nella notte*, Ciudad del Vaticano 2024, Prefacio).

Por lo demás, sólo en la resurrección de Cristo nuestros destinos encuentran su lugar en el horizonte infinito de la eternidad. Sólo de su Pascua nos viene la certeza de que nada, «ni la muerte ni la vida, ni los ángeles ni los principados, ni lo presente ni lo futuro, ni los poderes espirituales, ni lo alto ni lo profundo, ni ninguna otra criatura podrá separarnos jamás del amor de Dios» (*Rm 8,38-39*). Y de esta “gran esperanza” deriva cualquier otro rayo de luz que nos permite superar las pruebas y los obstáculos de la vida (cf. Benedicto XVI, *Carta enc. Spe salvi*, 27.31). No sólo eso, sino que el Resucitado también camina con nosotros, haciéndose nuestro compañero de viaje, como con los discípulos de Emaús (cf. *Lc 24,13-53*). Como ellos, también nosotros podemos compartir con Él nuestro desconcierto, nuestras preocupaciones y nuestras desilusiones, podemos escuchar su Palabra que nos ilumina y hace arder nuestro corazón, y nos permite reconocerlo presente en la fracción del Pan, vislumbrando en ese estar con nosotros, aun en los límites del presente, ese “más allá” que al acercarse nos devuelve valentía y confianza.

3. Y llegamos así al tercer aspecto, el del *compartir*. Los lugares donde se sufre son a menudo lugares de intercambio, de enriquecimiento mutuo. ¡Cuántas veces, junto al lecho de un enfermo, se aprende a esperar! ¡Cuántas veces, estando cerca de quien sufre, se aprende a creer! ¡Cuántas veces, inclinándose ante el necesitado, se descubre el amor! Es decir, nos damos cuenta de que somos “ángeles” de esperanza, mensajeros de Dios, los unos para los otros, todos juntos: enfermos, médicos, enfermeros, familiares, amigos, sacerdotes, religiosos y religiosas; y allí donde estemos: en la familia, en los dispensarios, en las residencias de ancianos, en los hospitales y en las clínicas.

Y es importante saber descubrir la belleza y la magnitud de estos encuentros de gracia y aprender a escribirlos en el alma para no olvidarlos; conservar en el corazón la sonrisa amable de un agente sanitario, la mirada agradecida y confiada de un paciente, el rostro comprensivo y atento de un médico o de un voluntario, el semblante expectante e inquieto de un cónyuge, de un hijo, de un nieto o de un amigo entrañable. Son todas luces que atesorar pues,

duelako, «Ebanjelioaren osotasuna bere promesa eta bizitza guztiekin ezagutu arte» (S. Joan Paulo II.a, *Discurso a los jóvenes*, New Orleans, 1987ko irailaren 12a).

Gaixo maiteak, sufritzen dutenei laguntzen diezuen anai-arreba maiteak, inoiz baino zeregin bereziagoa duzue Jubileu honetan. Elkarren ondoan joatea zeinu bat da guztiontzat, «giza duintasunaren ereserki bat, itxaropen kantu bat» (*Spes non confundit* bula, 11). Sendategietako geletatik eta oheetatik askoz harago doa zuen ahotsa, karitatean «gizarte osoaren kontzertua» estimulatzu eta animatzu (ik. ibíd.), batzuetan egiten zaila den harmonia batean, baina, hain zuen ere, horregatik da gozoa eta indartsua, argia eta beroa eramateko gai baita gehien behar den lekuan.

Eliza osoa dago eskertuta. Ni ere halaxe nago, eta zuen alde egiten dut otoitz; Mariari, Gaixoen Osasunari, eskatzen diot, anaia-arrebek askok une zailetan hari esan dizkioten hitzen bidez:

Zure babesaren bila gabiltza, Jainkoaren Ama;
ez itzazu utzi, alde batera, gure beharretan zuzentzen dizkizugun erreguak,
eta libra gaitzazu arrisku guztietatik,
oi beti Ama Birjin Ioriatsu eta bedeinkatua!

Bedeinkatu egiten zaituzzet, zuen familia eta gainerako senideekin batera,
eta nire alde otoitz egin dezazuen eskatzen dizuet, mesedez.

Erroman, Letrango San Joan baselizan, 2025eko urtarrilaren 14an

FRANTZISKO

aun en la oscuridad de la prueba, no sólo dan fuerza, sino que enseñan el sabor verdadero de la vida, en el amor y la proximidad (cf. *Lc* 10,25-37). Queridos enfermos, queridos hermanos y hermanas que asisten a los que sufren, en este *Jubileo* ustedes tienen más que nunca un rol especial. Su caminar juntos, en efecto, es un signo para todos, «un himno a la dignidad humana, un canto de esperanza» (Bula Spes non confundit, 11), cuya voz va mucho más allá de las habitaciones y las camas de los sanatorios donde se encuentren, estimulando y animando en la caridad “el concierto de toda la sociedad” (cf. *ibíd.*), en una armonía a veces difícil de realizar, pero precisamente por eso, muy dulce y fuerte, capaz de llevar luz y calor allí donde más se necesita.

Toda la Iglesia les está agradecida. También yo lo estoy y rezo por ustedes encomendándolos a María, Salud de los enfermos, por medio de las palabras con las que tantos hermanos y hermanas se han dirigido a ella en las dificultades:

Bajo tu amparo nos acogemos, Santa Madre de Dios;
no deseches las súplicas que te dirigimos en nuestras necesidades,
antes bien, líbranos de todo peligro,
¡oh siempre Virgen, gloriosa y bendita!

Los bendigo, junto con sus familias y demás seres queridos, y les pido, por favor, que no se olviden de rezar por mí.

Roma, San Juan de Letrán, 14 de enero de 2025

FRANCISCO

Gaixoen Igurtziaren Sakramentu honeri buruz Francisco Aita Santuaren funtsezko alderdi batzuk gogoratuko ditugu:

Aurten, maiatzaren 25ean izango da VI. Pazko igandea. Parroquia elkarteeek gaixoekin eta gaixoengatik otoitz egiten duten eguna da, eta gaixoen igurtzia ematen da. 2014ko otsailaren 26an, sakramentu horren emateari buruzko funtsezko alderdi batzuk gogorarazi zizkigun Frantzisko aita santuak:

-“Antzina, ‘azken igurtzia’ deitzen zitzzion, heriotzaren hurbiltasunean kontsolamendu espiritual gisa ulertzen zelako. ‘Gaixoen igurtzia’ deitzeak, aldiz, gaixotasunaren eta sufrimenduaren esperientziaren inguruko begirada zabaltzen laguntzen digu, Jainkoaren errukiaren horizontean”.

-Sakramentu hori ematen dugun bakoitzean, larri dagoenarengana eta sufritzen ari denarengana, edo adinekoa denarengana hurbiltzen da Jesus Jauna, apaizaren bidez. Parabolak dio samariar ona arduratzen dela sufritzen ari den gizakiaz, eta olioa eta ardoa isurtzen dituela haren zaurietan”.

-“Ostalari baten esku uzten da sufritzen ari den pertsona, hark zain dezan, gastuez arduratu gabe. Nor da ostalari hori? Eliza da, kristau elkartea da, gu geu gara, eta gure Jesus Jaunak gure esku uzten du, egunero, gorputz eta arima atsekabetuta dagoena, bere errukia eta salbazioa haien gainean neurrik gabe isurtzen jarrai dezagun”.

-“Izan ere, gaixoak eta sufritzen ari direnak berak bezain kuttun izaten erakutsi zien Jesusek bere ikasleei, eta sakramentu horren grazia bereziaren bidez bere izenean eta bihotzaren arabera lasaitasuna eta bakea eskaintzen jarraitzeko gaitasuna eta zeregina transmititu zien”.

-“65 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake sakramentua, eta, horren bidez, Jesus bera da guregana hurbiltzen dena”.

-“Gaixoari edo adinekoari laguntzera dator apaiza; horregatik da hain garrantzitsua apaizek gaixoak bisitatzea”.

-“Ederra da beti minaren eta gaixotasunaren unean bakarrik ez gaudela jakitea: apaizak eta gaixoen igurtziaren unean bertan daudenek kristau komunitate osoa ordezkatzen dute; izan ere, sufritzen ari denaren eta horren senideen inguruan biltzen gaitu gorputz bakar gisa, haiengan fedea eta itxaropena elikatuz, eta otoitzarekin eta anaia-arreben arteko goxotasunarekin eutsiz”.

-“Kontsolamendurik handiena, baina, sakramentuan agertzen dena Jesus Jauna bera izatea da; eskutik heltzen diguna, gaixoekin egiten zuen bezala laztantzen gaituena, eta bereak garela eta ezer — ez gaizkiak, ez eta heriotzak ere -ezingo gaitueta inoiz Beregandik bereizi gogorarazten diguna”.

Recordamos algunos aspectos fundamentales que nos recordaba el Papa Francisco en torno al Sacramento de la Unción:

El VI Domingo de Pascua este año 2025 se celebrará el 25 de mayo. Es un día en el que las comunidades parroquiales oran con y por los enfermos y se administra el sacramento de la unción de los enfermos. El Papa Francisco en una Audiencia el 26 de febrero de 2014 nos recordaba algunos aspectos fundamentales sobre la administración de este sacramento:

-“Antiguamente se le llamaba «Extrema unción», porque se entendía como un consuelo espiritual en la inminencia de la muerte. Hablar, en cambio, de «Unción de los enfermos» nos ayuda a ampliar la mirada a la experiencia de la enfermedad y del sufrimiento, en el horizonte de la misericordia de Dios”.

-Cada vez que celebramos ese sacramento, el Señor Jesús, en la persona del sacerdote, se hace cercano a quien sufre y está gravemente enfermo, o es anciano. Dice la parábola que el buen samaritano se hace cargo del hombre que sufre, derramando sobre sus heridas aceite y vino”.

-“Se confía a la persona que sufre a un hotelero, a fin de que pueda seguir cuidando de ella, sin preocuparse por los gastos. Bien, ¿quién es este hotelero? Es la Iglesia, la comunidad cristiana, somos nosotros, a quienes el Señor Jesús, cada día, confía a quienes tienen aflicciones, en el cuerpo y en el espíritu, para que podamos seguir derramando sobre ellos, sin medida, toda su misericordia y la salvación”.

-“Jesús, en efecto, enseñó a sus discípulos a tener su misma predilección por los enfermos y por quienes sufren y les transmitió la capacidad y la tarea de seguir dispensando en su nombre y según su corazón alivio y paz, a través de la gracia especial de ese sacramento”.

-“Cada persona de más de 65 años, puede recibir este sacramento, mediante el cual es Jesús mismo quien se acerca a nosotros”.

-El sacerdote viene para ayudar al enfermo o al anciano; por ello es tan importante la visita de los sacerdotes a los enfermos”.

-“Es siempre hermoso saber que en el momento del dolor y de la enfermedad no estamos solos: el sacerdote y quienes están presentes durante la Unción de los enfermos representan, en efecto, a toda la comunidad cristiana que, como un único cuerpo nos reúne alrededor de quien sufre y de los familiares, alimentando en ellos la fe y la esperanza, y sosteniéndolos con la oración y el calor fraternal”.

-“Pero el consuelo más grande deriva del hecho de que quien se hace presente en el sacramento es el Señor Jesús mismo, que nos toma de la mano, nos acaricia como hacía con los enfermos y nos recuerda que le pertenecemos y que nada —ni siquiera el mal y la muerte— podrá jamás separarnos de Él”.